

**RAIMUNDO OLABIDE, ODON APRAIZ, FEDERIKO
BELAUSTEGIGOITIA ETA LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI**

Vitoria/Gasteiz, 1994.04.22

EN EL 75 ANIVERSARIO DE LA FUNDACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

Vitoria/Gasteiz, 22.04.1994

*Juan Pastor Alvarez,
Presidente de las Juntas Generales de Araba/Alava*

Egunon, adiskideak!

¡Buenos días a todos, queridos amigos!

Amigos de Euskaltzaindia, de la Real Academia de la Lengua Vasca:

Señoras y Señores:

Para quien con todo orgullo y de manera responsable ostenta la Presidencia de las Juntas Generales de Alava, y por lo tanto tiene el honor de representar a esta institución que disfruta de una antigüedad de más de cinco siglos, constituye hoy, ahora, un indiscutible honor acogeros en este salón de plenos, y dirigiros unas palabras.

Damos la bienvenida, tan sincera como cordial, al Presidente y a los restantes miembros de una Real Academia de la Lengua Vasca, que en su setenta y cinco aniversario, ha querido acogerse a la hospitalidad de una cámara que, repito, es ya más que cinco veces centenaria. Estamos enormemente satisfechos de teneros aquí, académicos de Euskaltzaindia, amigos todos, en este salón de plenos de las Juntas Generales de Alava, de nuestras Arabako Biltzar Nagusiak, que es sede central de una trayectoria iniciada en el año 1463 para culminar en unas realidades operativas, modernas, que fueron definidas en la reinstauración institucional de 1979 en principio como “órgano de participación del pueblo alavés, a través de sus municipios agrupados en hermandades, en la administración y gobierno provincial”. Para con posterioridad en base al Estatuto de Autonomía y en configuración de los Organos Forales de los Territorios Históricos, añadirle el concepto de la representación y así culminar con la actual norma foral de organización institucional, estableciendo que:

“Las Juntas Generales constituye el órgano máximo de representación y participación popular del Territorio Histórico.”

Pues bien quiero manifestarles, por tanto que en nuestra actual cámara legislativa alavesa se viene ofreciendo constantes testimonios donde se respeta, ampara, potencia y utiliza el euskera..., y es por todo ello por lo que tanto el Presidente que os habla como el resto de los representantes y miembros de la institución os acogemos, os felicitamos por vuestro bien demostrado trabajo, y os deseamos, para los venideros años lo mejor.

¡Muchas gracias por vuestra atención, amigos todos!

Eskerrik asko denoi!

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN

Gasteiz, 1994.04.22

*Alberto Ansola Maiztegi,
Arabako diputatu nagusia*

Egunon denori,
Haritschelhar jaunari,
Euskaltzainak,
Adiskideak,
Lagunak eta den-denoi.
Egunon, berriro ere.

Nik uste dut txalogarria dela gaur bertan, Arabako Foru Aldundian Euskaltzaindiaren bilera hemen egitea eta baita ere, aurten Euskaltzaindiak ospatzen duen 75.urteurrena Araban bertan ere ospatzea, behar den neurrian eta behar den ohorean. Gure erakundeen artean asko daude geure-geureak eta bihotzean euskaldun guztiok daramatzagunak. Horietariko bat, nola ez Euskaltzaindia da, geure euskararen eta geure Herriaren hizkuntzaren alde lanean 75 urtetan ihardun duen Erakundea. Pozgarria da batez ere noizean behin, hemen, Araban, Foru Aldundi honetan, egiten dituzuen bilerak hauekin gogoraziz euskaldun guztiei, euskotar guztiei hobeto esanda, Araba ere euskalduna izan nahi duela eta euskaldunen artean bizi nahi duela eta, nola ez, hori lortzeko Euskaltzaindia erakunderik egokiena izan daiteke, batez ere sinbolo bezala edo ikur bezala. Urteurren hau ospatzeko, Oñatin lehendabiziko bilera egin genuenean. Han izan genuen aukera hitz egiteko eta behar diren hitzaldiak emateko. Baina nik uste dut gaurko aukera ez dela alperrikakoa zuei zorionak berriro emateko eta ez gaur euskaltzain zaretenoi bakarrik, euskaltzain izan diren guztiei baizik, eta bereziki, zuen baimenarekin, baita ere Arabatik lehendabiziko euskaltzainak izan zirenei.

Lau gizon, lau hizkuntzalari eta lau euskaltzale horiei ere bereziki agur bat eman nahi diet hemendik, gaur baino une txarragoetan euskararen alde lana egin zutelako eta Arabako euskaren aldeko ikur izan zirelako eta gaur ere direlako, nola ez! Historia ez da desegiten nahiz eta mundu honetatik bestera joanak izan, eta historiaren barruan dauzkagu

lau gizon hauek, zuek gaur gogaraziko dituzuenak. Araban, nik uste dut, gaur egun ez dagoela inor lau gizon hauekin bat ez datorrenik eta gure artean, euskal giroan behintzat, argi eta garbi dago eguneroko aipatzen ditugula bata, bestea edo laurak. Horregatik nahi nuen gaur, momentu honetan aipamen bat egin, lau gizon hauek euskararen alde, bereziki arabako euskararen alde, egin zuten lana mahai gainean jartzeko. Etxe honetara etorri zareten guztioi bihotz bihotzez ematen dizuet nire agurririk beroena, eta berriro zorionak 75. urteurren honegatik eta jarrai deza-zuela euskararen alde lanean, opa dizuet. Gure hizkuntzan zenbait sail oraindik behar diren beste sakondu gabe daude eta hizkuntza izan daiteke Herriaren mamia, kultura edo sozial-gai bat, behar bada; baina baita ere akademi gai bat ere bada, akademiko hutsa ez da baina nik horretaz ezin dizuet behar bada jakinduria gehiegirik eman, zuek zarete ni baino jakintsuagoak eta, nola ez, egoki ipiniak zaudete behar den lekuan, ni baino jakintsuagoak zaretelako, hizkuntza gaietan. Baina nire egin beharra gizartean edo politiko-sozial alorrean dago kokatua eta horregatik momentu honetan, behar bada ez da izango egokiena, baina esango nizueke hizkuntza honen etorkizuna ez datorrela gramatikatik bakarrik, baita erabileratik ere. Horregatik lortu behar dugu hezkuntzan eta beste alorretan ere hizkuntza erraz, herrikoi bat eta, era berean, gramatikal bat sartzea. Uste dut denok dakizuela zertaz ari naizen eta ez naiz gehiago luzatuko, baina gaur euskaldun berri asko sortzen ari zaigu, askok ez nahi dugun beste behar bada, beste batzuentzat nahi duten baino gehiago izatea baliteke ere; baina gaur egun euskaldun zaharrek, eta berriek, bereziki, ez dute gizartean girorik aurkitzen euskara erabiltzeko eta hau da daukagun arazorik haundienetarikoa: hizkuntzaren erabilera. Eta arazo hau konpontzea denon eginkizuna dela, uste dut. Behar bada zuek pentsatuko duzue hitz egiten dagoenak ardura gehiago daukala alde horretatik zuek baino, zuena beste egitasmoa, beste proiektua, beste ardura dela eta baliteke arrazoi pixka bat izatea, baina denon artean, Euskaltzaindia eta Erakunde Publikoen artean, lortu beharko genuke ez bakarrik euskara ikastea, baizik eta eguneroko erabileran normaltasun batera iritea. Itxaropen honetan, eskerrik asko etortzeagatik eta zorionak berriz ere zuen 75. urteurren honegatik eta nola ez, opa dizuet egoera hobereana Araban eta Euskal Herria osoan eta Euskaltzaindiari etorkizun ospetsuena.

Eskerrik asko.

**ERRAIMUN OLABIDE, ODON APRAIZ, FEDERIKO BELAUS-
TEGIGOITIA ETA LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI JAUNEI
OMENALDIA EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGAN**

Vitoria/Gasteiz, 1994.04.22

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Alberto Ansola jauna, Arabako diputatu nagusia,
Juan Pastor Alvarez jauna, Arabako Batzar Nagusietako burua,
Euskaltzainkideak,

Jaun-Andereak.
Agur.

Nahi dizkizuet eskertu orain bertan eman dizkiguzuen ongi etorria, hain alegera, hain gozoa. Badakigu, hemen sartzen garelarik gure etxean gaudela eta beti hartu gaituzue behar den bezala, eta zure partez euskaraz. Hori ez da guti guretzako.

* * *

Quisiera de alguna manera agradecer a Vd., Señor Juan Pastor, las palabras de bienvenida que nos ha dedicado. Estamos aquí en el Salón de las Juntas Generales de Alava y desde luego es para nosotros un placer y un honor estar aquí.

* * *

Hemen gaude beraz, Gasteizen. Eta gure 75.urtemuga hori ospatzen dugu aurten. Hasi gara Oñatin, iazko urriaren lehenean eta segituko dugu datorren urria arte. Erran dut aldi bat baino gehiago eta errepikatu, gure urte hau alde batetik zorionezko urtea dela eta denbora berean ere lan-urtea. Horretarako biltzen gara probintzia bakoitzeko hiri

nagusietan. Hala nola, bildu gara jadanik Donostian LEF batzordearen lanak aztertuz, bildu gara Bilbon Jagon Jardunaldi horietan, bildu gara Iruñean eta hor ukan dugu Juan Cruz Alli jaunaren ongi etorria eta gramatika gauza batzuk aztertu ditugu eta orain Gasteizen Hiztegi Batuaz ariko gara. Bilbon datorren hilean ahoskera aztertuko dugu; hurrengoan Miarritzera joango gara Onomastika edo Exonomastika batzordeak bildurik; Donostian berriz ere literatura aipatuko dugu. Eta hain zuzen hor izango dugu egun berezia, hala nola irailaren 21a. Irailaren 21ean bilduko gara, beraz, Donostian eta zertako egun hori? Zeren eta dela 75 urte bildu baitziren orduko prentsaren ordezkariak eta hor izendatu baitzituzten zortzi euskaltzain. Lehenbizikoak izendatuak izan ziren urte bat lehenago, Oñatin, eta beste zortziak Donostian. Hortakotz bilduko gara 75 urteren buruan gogoan hartuz han osatu zela Euskaltzaindia. Gero ukanen dugu XIII. Biltzarra Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioan, urriaren 3tik 7arte. Egun Horiek ez ziren nolanahtu hautatuak izan: eta hain zuzen behar bezala suertatu zaigu urriaren 3a dela astelehena eta urriaren 7a ostirala. Baina duela 75 urte urriaren 3an hasi zen Arantzazuko Kongresua eta han eman zituen lehenbiziko urratsak euskara batuak. Hori ere nahi dugu gogoratu zeren eta nahi genuke beste urrats bat eman euskara baturantz edo batuari buruz. Bukatuko dugu Kongresu hori edo Biltzar Nagusi hori urriaren 7an eta hain zuzen duela 75 urte Donostiako Foru Aldundian bildu ziren lehen aldikotz euskaltzainak, eta lehen aldikotz beraz orduan erraiten ahal dugu bai martxan jarri zela Euskaltzaindia, orduan izendatu zuten euskaltzainburu Resurrección María de Azkue. Horiek dira beraz aurtengo urratsak.

Eta denbora berean ere ohiko bilkuretan aritzen gara eta jarraitzen ditugu gure lanak. Hain zuzen, goiz honetan aditzari buruz, hitanoa nola beharko den erabili eta hor pixka bat aditz trinkoak aztertuz, erabaki ditugu aditz laguntzaileak eta beraz, urrats bat gehiago eman da. Emeki-emeki, baina dira gauzak behar lehenik behar den bezala antolatu, preparatu, batzordeak horretarako lanean ari dira eta lan ederra egin digute Gramatika batzordekoek goiz honetan ikusi dugun bezala.

* * *

Voy a resumir en dos palabras lo que he dicho, porque creo que aquí todos no saben el euskara. Este es un año de trabajo para Euskaltzaindia. Nació hace 75 años y este año lo estamos pasando trabajando. Nos reunimos en todas las capitales, en primer lugar Donostia, después Bilbo, Pamplona el mes pasado y hoy en Vitoria/Gasteiz. Iremos en junio a Biarritz y después terminaremos, pasando por Donostia otra vez y por fin, en la Universidad del País Vasco en Lejona.

Año de trabajo dentro de unas etapas que estamos siguiendo, tratando de criterios lexicológicos, haciendo también reuniones, como se ha visto en Bilbao, de la Sección Tutelar; viendo temas de gramática, como en Pamplona en donde nos acogió el Sr. Alli. Esta tarde y mañana vamos a trabajar sobre los criterios lexicológicos y también sobre el léxico unificado, pensando que de 2.000 palabras que se dieron hace 25 años, tenemos ya unas 5.000 palabras ya unificadas. Se tratará de fonología en Bilbao en el mes de mayo, de exonomástica en Biarritz a finales de junio y primeros días de julio. También se reunirá Euskaltzaindia para oír temas de literatura y vamos a reunirnos el 21 de septiembre en Donostia. El 21 de septiembre es un miércoles, pero lo que queremos recordar es que el 21 de septiembre de 1919 se eligieron a los ocho académicos que faltaban porque se habían elegido los cuatro primeros en septiembre de 1918 en Oñate. Y aquel día los representantes de la prensa de todo Euskal Herria se reunieron en Donostia y eligieron a los ocho académicos para hacer el número de doce que era el de entonces. Con esto quiero decir que 75 años después, el mismo día vamos a reunirnos en Donostia y que convidaremos a la prensa y no sólo por recordar a los de hace 75 años sino también a los modernos medios de comunicación que son la radio y la televisión. Porque Euskaltzaindia quiere estar muy cerca de esos medios de comunicación; le hace falta tener comunicación con los demás, no sólo con los euskaltzales, no sólo con los euskaldunes sino con los euskotarras. Y terminaremos el año en un Congreso, el XIIIº de Euskaltzaindia desde su fundación, en la Universidad del País Vasco. Euskaltzaindia tiene un convenio con la Universidad del País Vasco y se vale de esto para reunirse allí entre el 3 y el 7 de octubre. Será un congreso abierto porque Euskaltzaindia quiere obtener el consenso de la mayor parte de los euskaldunes para avanzar hacia este lenguaje literario común, hacia este euskara batua. Y este acontecimiento también tiene históricamente su valor. El 3 de octubre de hace 25 años se reunieron los académicos en Arantzazu y se dieron los primeros pasos del euskara batua. Queremos recordar esto porque nuestro ideal es ir avanzando, dando pasos hacia este lenguaje literario común. Y se terminará el 7 de octubre, fecha que corresponde con la primera reunión de Euskaltzaindia, el 7 de octubre de 1919, hace 75 años. Este es un recuerdo que históricamente queremos mantener. Aquel día se reunieron los académicos y eligieron a Resurrección María de Azkue como primer presidente.

Este es el trabajo de Euskaltzaindia. Euskaltzaindia quiere ir por todas partes y decir lo que quiere hacer, expresar la voluntad que tiene de seguir avanzando en este camino, que no es nada fácil, del euskara batua. Pero teniendo en cuenta la trayectoria que hemos recorrido desde hace 25 años, yo me encuentro muy optimista sabiendo que las co-

sas han cambiado. En 1968 cuando se celebró la reunión de Arantzazu el euskara vivía mal. Ahora desde luego han cambiado las cosas y gracias al apoyo que tenemos de nuestros dirigentes políticos ya podemos ir hacia adelante. Por tanto, otra vez les quiero agradecer las palabras que han pronunciado dándonos el mejor ongi etorri que pensábamos tener.

RAIMUNDO OLABIDEREN BIZITZA ETA LANAK (1869-1942)

Gasteiz, 1994.04.22

Patxi Altuna

Kontu kontari natorkizue gaur, hizkuntzazko edo filologiazko ikerlan astun-nekosoak alde batera utzirik eta, aspaldi honetan ahaztuxe daukagun aita Olabide mintzagai harturik. Ez ordea haren euskal obraren tantaia neurtzeko eta iuiatzeko, baizik, haren jaioterrian gaudenez gero, haren bizitzaren berri emateko. Zeren ez baitugu gaurko euskaldunik gehienok behar adina ezagutzen, nahiz hil zenetik mende erdia baizik igaro ez den eta bere obra gorena, *Itun zahar eta berria*, argitaratu zenetik hogeita hamabost urte baizik ez. Nahi nuke biziki ene kontaktizun honek norbaiti haren obra hobeki ikertzeko gogoa piztu liezaion!

Joan zen hilean, martxoaren 15ean, bete ziren ehun eta hogeita bost urte hemen, Gasteizen, 1869an sortu zenetik. Odolez gipuzkoarra zen aitaren aldetik; tolosarra, dirudienez, nahiz aita Mugikak andoaindartzat daukan, eta goragoko etorkiz legazpiarra. Madriltarra, aldiz, Dolores Carrera amaren aldetik. Ez dirudi umetan euskaraz mintzo zenik: “ni en su niñez ni en su primera juventud oyó la lengua de sus apellidos”, dio Felix de Areitiok (1). Mutikotan Urduñako jesulagunen ikastetxe famatura igorri zuten gurasoek ikastera eta, batxilerra bururatzean, jesulagun izatea erabaki zuen eta Loiolan sartu hamabost urte zituela. Ohi bezala bi urtez nobizio izan zen eta han bertan gero, lehen zinitzak egin ondoren, beste hiru urtez aritu Gramatika eta Humanitateak zerizten ikasmailak ez ezik, Retorika ere lantzen. Azken bi urteetan ondu zituen latinezko lau olerki, oso poliki taxutuak, Loiolako artxiboan aurkitu ditut eta neure paperen artean hementxe ditut. Lau metro desberdinez onduak dira: lehena hexametroz, bigarrena bertso alkaiko direlakoez, hirugarrena asklepiadeoez eta azkena distikoz. Baina ez beldur, ez dizkizuet irakurriko, bai ordea hitzaldiari bukaeran erantsiko.

(1) AREITIO, Felix de: “La Biblia vasca de Olabide”, *Estudios eclesiásticos*, 1959, 347-352. or.

Hurrengo txanda hiru urtez Filosofiako ikasketak egitekoa zuen eta halaxe egin zituen, ez ordea bere gainerako lagunek bezala Oñan, baizik Beruelan urtebete eta Tortosan bi. Garai hartan, eta geroago ere bai, fama zuten Aragoi-Kataluniako jesulagunek, artean Probintzi bakarra osatzen zutenek, matematika eta natura-zientzietan irakasle hobeak zituztela Kastillako jesulagunek baino, eta, Olabide Urduñan batxiler-ikasle zenetik bertatik nabarmendu baitzen halako gaietan, gero gai haietan irakasle izan zedin igorri zuten, dirudienez, probintzi hartara, Filosofia-rekin batera egin ohi ziren ikasketa haiek hobeki egitera.

Maisu-txiki —gazteleraz “maestrillo”— deituriko gazteek ikastetxeetan egiten zituzten lanetara ateratzeko garaia heldua zuen honenbestez 1892an. Gorabehera handixeaa izan ohi zen nora suertatzen zitzaion bati joatea edo, hobeki esan, nora igortzen zuten bat agintariak, ez baitzen berdin euskaldun batentzat Bilbora zein Donostiara edo Jijonera zein Valladolidera bidali, eta, batez ere, zenbat urtetarako igortzen zuten, hiru ala gehiagotarako, horrek berekin baitzekarren apaiz egiteko atzerapena batetik eta bestetik hirutik gorakoa zigortzat hartu ohi baitzen maizenik, nahiz ez izan hala beti. Oroit zaitezte Orixe sei urtez eduki zutela lan-tegi horretan.

Nora, eta Jijonera igorri zuten Olabide. Han hiru urtez aritu zen bere-bereak zituen zientziatzko gaiak irakasten eta mutil-saldoak, ikasten nahiz jolasten ari zirenean, begiratzen. Urte haietako batean balentria bipila egin zuen: Salamankako Filosofia eta Letretako fakultatean matrikulatu eta ikasturte bakarrean, 1894-95ekoan, ikasgai guziak gainditu, hasi eta buka. Ondoren urte berean, 1895ean, ahozko azterketa “ejercicio de grado” deitzen zitzaiona egin zuen Urriaren 8an. Gaiaren zozketan hau atera zitzaion: “El gran cisma de Occidente: sus causas, sus diferentes vicisitudes hasta Nicolás V”, eta “bikain” nota eman zioten epaimahaiko hiru irakasleek. Aita Mugikak bestela kontatzen ditu kontu hauek (2), baina atzo bertan hartu nituen Salamankatik agirien eta txartelen fotokopiak eta fede eman dezaket gauzak horrela eta urte horretan gertatu zirela. Egia ote da, Mugikak dioen bezala, gau eta egun ikasten jardunik egin behar izan zuen gatazka eta ardailagatik, loa galdu eta, medikuek esanik lokartzeko bide bakarra erretzea zuela, Ordenako nagusiek baimena eman ziotela erre zezan? Hil arte hala egin zuela, bai, egia omen da.

Horrenbestez usteko zuen hiru urte haien ondoren agintariak emango ziotela ikasketa guzien gaina zen teologiarako pasa-agiria, baina ez, hiru urte haiek burutzean ez zioten oraindik utzi Oñara teologia

(2) MUGIKA, Pl.: “Olabide A.-ren bizitz-arteo berri”, *Euzko-Gogoa*, 1958, IX, 451. or.

ikastera joaten. Gaztetxo iritzi zioten, agian, hogeita bost urte baizik ez baitzituen artean eta, bertantxe Oñara joan izan balitz, hogeita zortzi urtez apaiztuko baitzen, gutxitxo aukeran jesulagunak apaiz egin ohi diren adinerako.

Beste urtebete eduki zuten “maisu txiki” lanetan, ez ordea han bertan, baizik Valladoliden, orduarteko gai bertsuak irakatsiz eta are musika-koruko zuzendari ere izanez. Hura izan balitz azkena, gaitz erdi, baina ez; hura bukatzean ere gaztetxo iritzi ziotelako edo, ez jakin, beharbada bere kabuz hartu berriak zituen eta desorduetan lantzen zituen ikasketa berezi batzuen surmurra agintarien belarrira iritsi zelako, gauza da berriz ere atzeratu ziotela teologia ikasten hastea eta beste urtebeterako Salamankako “Apezetxe zentrala” zeritzanera igorri zutela, oraingoan latina eta gerquera irakastera.

Ikasketa bereziak aipatu ditut arestian, bere kabuz hartu eta desorduetan lantzen zituenak. Ze ikasketa ziren horiek? Euskarazkoak; bai, euskara ikasteko erabakia hartu zuen Olabidek batbatean, eta gogotik ekin zitzaion eta gogotik jarraitu urte handietan; eta nahiz alde txiki bat baden lehengoek hori kontatu diguten moduan —moduan baino gehiago, ikasten hasi zeneko lekuan, Valladoliden aurreko urtean ala Salamanka egon zenekoan—, funtsari dagokionez bat datoz. Campionen Gramatika eskuetara omen zitzaion behin eta han irakurri hitz haiek: “Entonces me avergoncé de llevar sangre eúskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los eúskaros”. Oinazturak jo balu bezala, euskara ikasteko erabakia —sendoa noski, bestelakorik hartzen ez omen zekien Olabidek— hartu zuen eta bertantxe ekin lanari. Hogeita zazpi urte zituen.

Oraindik ia hogeitazero geroago, 1915ean, Pontevedrako La Guardian bizi zelarik eta bere lehenbiziko liburu itzulia argitaratua zuelarik, lagun batek galdegin zionean ze euskal liburu zituen lanerako, bost hauek zirela erantzun zion berekin zituen guziak: Azkueren Hiztegia, Eleizalderen Morfologia, Arana Goiriren Ortografia, Lardizabalen “Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira”, Campionen Gramatika eta garai hartako aldizkari batzuk.

Hurrengo ikasturtean (1897-98) Oñara joaten utzi zioten azkenean, baina orduan ere Teologia ikastera ez. Berak Tortosan Filosofiako bi azken urteetan bezala, Oñan Filosofia ikasten ari ziren jesulagun gazteek ere Natura-zientziak ikasten zituzten, besteak beste, eta haiek haiei irakasteko ez zuten nonbait nagusiek irakasle hoberik ezagutzen Olabide baino, eta hartara igorri zuten beste urtebete —seigarrena— “maisu txiki” izatera. Ez zait iruditzen haatik erabat haserre joango zenik; beste ikastetxeren batera igorri balute bezain haserre ez bederen, zeren han ez baitzuen behintzat mutil-saldorik goizetik gaueraino zaindu beharko eta

gartsuki lantzen ari zen ikasketa bereziei ekiteko askoz ordu gehiago izango baitzuen.

Hogeigarren mendearen ataria zen, 1898. urtea. Hamabost urterekin Loiolan sartu, hogeita hamar bete behar laster, eta halere bost falta ditu oraindik jesulagunen hazibide osoa beretzeko. Hurrengo lau ikasturteetan han bertan jarraitzen dela diote Katalogoek; oraingoan, haatik, Teologia ikasten. Lau urte segidan izan ohi ziren, baina hirugarrena amaitzean apaizgoa hartu ohi zen. Ez zitzairen ordea guzietan multzoan ematen hartarako eskua; ez zen aski Teologiako hirugarren urtea ikasia izatea apaiz egiteko, banaka ematen edo ukatzen zitzairen hartarako eskua. Eta Olabideri nonbait ukatu egin zioten; bere mailako kideek 1901eko udan apaiz ordenak hartzen dituzten bitartean, Olabide hartu gabe gelditu zen urte hartan eta hurrengo udan, 1902koan, San Inazio bezperan, esaten zaigu hartu zituela eta biharamonean lehen Meza eman. Zergatik? Euskarari Teologiaren kaltetan denbora gehiegi eman ziolako? Ez jakin; baina ez dirudi. Hona zergatik:

“Examen ad gradum” delakoa egin behar izaten du jesulagunak filosofiako eta teologiako azterketa guziak gainditu eta gero, laugarren zinitza delakoa eginik “profeso” izango bada. Halakoa egin zuela Olabidek eta gainditurik maila horretako jesulaguna izan zela badakigu. Beraz ez dirudi, teologiako ikasketei denbora handirik ostu zielako keixu izan zitezkeenik agintariak. Olabideren “ad gradum” delako azterketa horretako pasadizu bat heldu da guganaino ahoz-ahoz eta lehengo batean kontatu zidan berriro harekin bizi izandako 86 urteko jesulagun batek. Epaimahaiko bost irakasleetatik batek aski gogor hartu nonbait Olabide; ez etortzen bat honek azaldu zuen dotrinaren batekin; eztabaida latzean orapilatu biak, eta irakaslea garraxika hasi zitzaiolarik, Olabidek patxada osoarekin erausi: “Ne nimis clames, ne forte ceteri credant te rationem habere”. (Ez orro egin, besteek pentsa ez dezaten arrazoia duzula).

Manresan egin zuen “hirugarren probantza” delakoa eta, orduko hogeita hamalau urte izanik, trebatua zegoen edozein ikastetxetara irakarle handi, eta ez lehen bezala “maisutxiki”, izatera joateko. Jijonera igorri zuten lehenik berriz ere eta, lehen han bertan hiru urte eman bazituen, orain beste sei ematen ditu segidan. Hantxe egin zituen 1906ko irailaren 15ean azken zinitz handiak.

Sei urte haien ondoren, 1909-1910eko ikasturtean, zazpi urtez biziko den leku berrian aurkitzen dugu, Pontevedrako La Guardian, bere lehen euskal lana burutu eta argitaratu zuen hirian. Ia hogeita urte ziren euskara ikasten hasi zela. Urte horietan egin zituen aurrerapenen aztarnarik ez dugu; isilik eta bakarrik aritu zen lanean. Loiolan badira ariketa gisa egi-

niko itzulpen batzuk, Esoporen gerkerazko fabuletatik euskaratuak. Ez dakigu noizkoak diren, baina oso goiztarrak ezin izan, biziki ongi oratuak baitaude. Hona ale bat, aita Mugikak dakarren gisan (3):

NEKAZARIA TA BERE SEMEAK

Nekazari batek, bizitza bukatzerakoan, bere semeak lugintzara yoak nairik, dei egin ta esan zien: "Ene semeak! Nereak laxter egingo du noski. Billa ibilki, aurkituko dezute, nik mastian eortzi dedan guzia". Aiek ba, altxorra ango nonbait eortzi zuala uste izanik, masti-lurra, aita il ezkeru, barneraíño atxurtu zuten. Altxorrik, orraitíño, ez zuten aurkitu. Baña ederki atxurtutako mastiak zitu ugariago ekarri zien.

Ipuíño: Ipuíñak darakus gizonen altxorra lana dala.

Orduarte ixilik egin zuen lanaren emaitzak batbatean erakutsi zituen, 1914an *Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak*, San Inazioaren *Ejertzioak* deritzagun liburukia, alegia, argitaraturik. Hona zer dioen aita Villasantek:

"La traducción está hecha con palabras ultrapuras, pero no tiene olor, color ni sabor vasco. Así, por ejemplo, "El llamamiento del rey temporal" se traduce: *Aldiko Bakaldunaren Deya*, et sic de ceteris" (4). Aita Areitiok bere aldetik hau diosku: "La traducción, depurada por su amigo el catedrático D. Luis de Eleizalde, es neta, aunque algo tiesa todavía" (5).

Beste bi urte eman zituen La Guardian, zazpi danera, lehen esan bezala, eta 1916. urteko udan Valladolidera igorri zuten. Hurrengo urtean, 1917an, argitaratu zuen bigarren liburua, *Giza-soina* izenekoa, ia 7.000 hitzeko hiztegia, sail handi baten lehena izan behar zuena eta, asmo hura burutu izan balitz, gure egunotako UZEI-ren aitzindari izan-go zatekeena. Nahi baitzuen hari jarrai zekizkion Giza-gogoari, Erljioari, Lugintzari, Kimikari, Fisikari, Izadiko Jakintzei eta abarri zegozkienak ere. Lacomberentzat liburu hau da "livre indispensable á consulter par quiconque veut se livrer á des études synthétiques sur le vocabulaire euskarien" (6). Justo Garate medikuak hau idatzi zuen:

"Por lo que a léxico atañe, nuestra obra fundamental es la del P. Olabide titulada GIZA-SOÍÑA, para el que todos mis elo-

(3) MUGIKA, Pl.: Hor berean.

(4) VILLASANTE, Luis: *Historia de la literatura vasca*, Edit. Aranzazu, 2. ed., 367. or.

(5) AREITIO, F.: Op. cit., 348. or.

(6) LACOMBE, Georges: "Le nouveau Testament basque du Père Olabide", *Gure Herria* 1932, XI, 239-242. or.

gios serán escasos por su riqueza léxica, acertada disposición y utilísimos índices vasco y castellano” (7). Dunixik beste hau: “Una de las más excelsas mentalidades del renacimiento vasco, el P. Olabide, acaba de dar a luz en buena hora un libro fundamental en nuestro idioma” (8). Eta aita Villasantek Olabidaren hitzak bere eginez esango digu: “quiere recoger las piedras dispersas que pueden servir para la construcción del edificio de la cultura vasca. La gran fuente de que se ha servido para este repertorio de voces sobre el cuerpo es, como lo confiesa, el magno diccionario de Azkue” (9).

1918an egin zen Oñatin aurten guziok ospatzen ari garen Biltzarra, non Euskaltzaindia sortu baitzen. Han izan zen Olabide eta han aurkeztu zuen gazteleraz lan aski luzea, ez batere txarra, Lexikologiaz eta Lexikografiaz. Ikus zer dioen horretaz Lafitte jaunak: “En 1918, au Congrès d’Oñate, l’auteur du *Giza-Soina* fit un rapport très fouillé sur la “Lexicologie”, et montra l’insuffisance de la présentation alphabétique; en 1919, il reprénait sa thèse dans “Euskal-Esnalea”, et montrait la nécessité d’un “Thesaurus” formé comme le Sander en Allemagne, le Roget en Angleterre, le Zanotto en Italie” (10). “Euskal-Esnalea”-koa, egia esan, Oinatiko gaztelerazkoaren euskarazko laburpena baizik ez zen izan.

1919ko uda. Duela lau hilabete egin ditu Olabidek 50 urte. Hogeita hamar dira Loiola utzirik erromes atera zela Euskal Herritik mutiko pijo gasteitzar, Areitio honela deskribatzen digun hura:

...el espíritu gigante de aquel alavesito, bajo más bien que alto, de armazón ancha, frente y cabeza despejadas, ojos vivos y apostura marcial, siempre que los dolores de úlcera no la engogiesen e hicieran palidecer sus rojizos pómulos” (11).

Azkenean etxerantz dator berriz ere, hobeto esan, etxetik umetan ateratzean lehen ikasketak egin zituen ikastetxera, Urduñara. Bi urtez iraungo du han eta, aurreko ikasturte guzietan bezala, irakasle izango eta eskolak ematen jarraituko. Eta euskal lanetan ere bai, zer esanik ez.

Lan horien saria laster etorri zitzaion. 1919ko irailaren 21ean Donostian Euskaltzaindi sortu berriak egin zuen biltzarrean, euskaltzain oso

(7) GARATE, Justo: “Los estudios de Medicina en el País Vasco”, *RIEV* 1929, 388. or.

(8) AZKUE, Dionisio (“Dunixi”); in Mugika Plazido, “Olabide A.- ren bizitz-arteko berri”, *Euzko Gogoa* 1958, IX, 453. or.

(9) VILLASANTE, L.: Op. cit., 367. or.

(10) LAFITTE, Pierre: “Autour de la Bible traduite en basque par le père R. Olabide”, Bayonne, *Herria*, 1959, 17. or.

(11) AREITIO, F.: Op. cit., 349. or.

hautatu zen beste zazpi lagunekin batean eta handik hilabete batzuetara, Urduñako bigarren urtean, eman zuen argitara bigarren liburu itzulia, lehen eta gero hainbeste bider euskaratua izan den “Kristoren Imitazio-nea” edo “Kempisa”, Olabidek “Josu-Kistoren Antzbidea” izendatua. Orixeren hitzak dira honako hauek:

“Gogo-Iñarkunetan’ laxko da. ‘Kistoren Antzbidean’ samurra-
go, geroago ta ixurberago. Erriarentzat ez baño erdiko jakin-
tsuarentzat ari da, ta barkakizun ez ezen goresgarri ere
bada” (12).

Orixe aipatu dudanez gero, ez nuke hemen laburki bada ere kontatu gabe utzi nahi aita Gotzon Goenagak hementxe, Gasteizen, 1959ko martxoaren 15ean, Olabidek bizi izan balitz laurogeita hamar urte beteko zituen egunean, egin zuen mintzaldian Orixeren ahotik astebete bat lehenago entzunda kontaturiko pasadizua. Honela dio aita Goenagak:

“—Egia ote da Olabidek buruz zekiala Azkueren iztegia? galdetu nion joan dan astean Orixeri. —Bai, esan zidan. —Baño erderazko eta euskerazko itzen artean bakoitzari zegokiona txarteletan edo nunbait eukiko zun? —Ez txartel, ez txartel-toki ez nizkion iñoiz ere ikusi, zortzi urtebete berekin lanean ari izan arren, esan zidan Orixek” (13).

Lagunditik 1923ko irailean atera eta Azkuek laguntzaile hartu zuenean, Euskaltzaindiaren bulegoan aritu zen Olabiderekin lanean eta, dirudie-nez, beste euskaltzainekin baino gehixeago.

“...nik ateratzen bainition bost aldaki, ark itzuli-ala”, diosku berak (14). “Olabide ere lagunkide zuen Euskaltzaindiko bulegoan, Bilboko Erribera kalean”, dio Paulo Iztuetak (15).

Hor ditugu ere lekuko Orixe beraren “Lenengo gaiñezkaldiak” deritzan olerkiaren bi bertso-lerro hauek:

Euskaltzaindiaren
etxean giñardun
Paul’en eskutitzak
aldatzen garbira.

(12) ORIXE, Nikolas: *Euskeraren-Alde*, 1922, 252. or.

(13) GOENAGA, Gotzon: “Breve exposición sobre la figura del R. P. Raimundo Olabide, S.J.” (Homenaje en el Teatro Principal de Vitoria, 15 de marzo de 1959), Vitoria, 1959.

(14) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko Gogoia*, 1958, 519. or.

(15) IZTUETA, Paulo: “*Quiton arrebarekin*” *irakurriz*, 145. or.

(Olabide baizik
 iñor ez lekuko;
 jun zan ni baiño lèn
 zeruko urira) (16)

Utz dezagun Orixe eta itzul gaitezen Olabidegana. Urduñan utzi dugu hango bigarren ikasturtean “Josu-Kistoren Antzbidea” argitara eman berritan. Mugarria izan zen urte hori haren bizitzan. Hor amaitu baitzen Olabide irakaslearen etapa, hogeita hiru urte iraun zuena, eta hor hasi ofizialki Olabide idazlearena, Katalogoan harrezkero “Scriptor” soilak adieraziko zuena. Ordutik aurrera libro uzten dute agintariak, beste egitekorik gabe, proposatu dien itzulpen larri eta itzel bati buru eta berlarri ekin diezaion. Eta horretarako 1921garren urte hartan, lehengo “Giza-soiña”-ren osagarri izan behar zuen “Giza-gogoa” oso aurreratua zeukalarik, batbatean, goi-argiaz hala ikusi balu bezala, bertan behera utzi hura eta eskuartean zituen gainerako lan guziak, eta Biblia osoa euskaratzeko asmoa eta erabakia hartzen du, eta Loiolara biltzen da, antzina Larramendi ere bildu zen bezala.

1921garren urte hori euskal literaturaren istoria berrian beste gertari bategatik ere izan zen mugarria. Urte horrexetan sartu ziren Loiolan nobizio, izan ere, gero euskal letretan hainbat nabarmendu ziren eta “Loiolako eskola” deitu izan deneko ikasle bikain izan ziren Zaitegi, Ibinagabaitia, Lauaxeta, Mujika, eta abar. Hona nola idatzi zuen gero azken honek:

“lan ontan ezagutu genun Loiolan, eta garai artan gaztetxo gifañok gure Maixu agurgarri ta eredu bezela artzen genun Olabide aita euskaldun guziok” (17).

Ia ez omen zuten ikusten, bizimodu bakartia omen zeraman, “genio”-tzat omen zeukaten: hala esan zidan lehengoan garai hartan Loiolan bizi zen batek. “Zabale” izeneko baserrira joan ohi ziren egun-pasa ostegunetan gazteak eta, aita Errandonea eta hiru urte geroago Loiolara irakasle izateko heldu zen aita Estefania, gazteei lagunduz “Zabale”-ra maiz joaten zirela esaten zaigun bitartean, aldiz Olabide oso gutxitan urtean.

Ondoko hamar urteak Loiolan eman zituen jo eta ke lanean, gaztetan ikasitako gerkera eta hebreoa berriztatzen, arameoa hutsetik hasita ikasten, Izkribu Sakratuei zegozkien ezagutzak bereganatzen, Izkribu haiei buruz frantsesez, alemanez eta ingelesez eginiko libururik hoberenak irakurtzen eta ikertzen. Testamentu berritik hasi zen, beti ere

(16) ORIXE, N.: *Euskaldunak Poema eta Olerki guziak*, 584. or.

(17) MUGIKA, Pl.: *Op. cit.*, 453, or.

samurrago izango zitzaiolakoan, eta hamar urte baino lehen ez zuen burutan atera. Bilbon 1931. urtean argitaratu zuen. Eta Bilbora, inprimategiko probak zirela-eta, maiz joan behar zuelako, Loiolatik Urduñara aldatu zen bizitzera azken urte hartan. Aurrekoan, 1930ean, agertu zen lehenbiziko aldiz Katalogoan haren deitura *b* letraz idatzia.

Itun Berria eman zion izena liburuari. Arrakasta handia izan zuen. Lafittek honela dio: “l’ouvrage eut un grand succès outre-mont auprès du jeune clergé” (18). Lacombe honela: “Au total il survivra sûrement et sera souvent cité. Les philologues d’aujourd’hui et de demain... en feront leurs délices” (19). Areitioen ustez,

“Hay un grandísimo avance en esta obra sobre las anteriores; por supuesto, el vocabulario es ya inmensamente más rico, pero sobre todo el estilo, sus giros, su expresión vienen a ser mucho más suaves y sabrosos que antes” (20).

Garai txarrak zetozkien jesulagunei. 1932an erbestera egotzi zituen Gobernuak. Loiolan ez zen kristaurik gelditu. Gazteek eta gazteen ardua zuten irakasleek eta nagusiek Belgikara aldegin zuten; kargugabeko apaiz helduak hemen inguruan barreiatu ziren eta ahal zuenak ahal zuen lekuan bilatu zuen babesa. Katalogoan “Coetus” edo taldetan pilaturik bizi zirela esaten zaigu, baina horrek ez du esan nahi batera bizi zirenik, elkarrengandik gertu baizik eta nagusi bera zutelarik. Olabide XIgarren “Coetus”-ean ageri da Aitzolen anaia Inazioarekin batean. Badakigu Cortina jaun-andreen etxean bizi izan zela ostatuz, orain Euskaltzaindiak bere egoitza nagusia duen Plaza Barrian berean, gero Arantzazun izkutatatu zela aldi batez, 1933ko Eguberrietan edo, eta harekin egun batzuk igaro zituela han Koldo Agirre apaiz bergararrak. Entzun aita Villasante:

“Según la crónica (manuscrita) del convento de Aránzazu, el 20 de mayo de 1935, el P. Olabide se despidió definitivamente de aquí y se trasladó a Guernica (Vizcaya), donde residía en una casa particular, juntamente con los hermanos Goicoechea, jesuitas también. Allí le sorprendió el Alzamiento Nacional” (21).

Bai, Artekalde kalean, 37garren zenbakian bizi zela dio 1936-37ko Katalogoak. Egundua tristea hura, 1937ko apirilaren 26a! Hasi zen bonbardaketa eta egun hartan Olabideri gertatua poliki kontatzen du aita Villasantek (22). Neri, ordea, orduan 17 urteko gudari zen eta gaur jesulaguna den batek honela kontatu zidan duela hamabost egun.

(18) LAFITTE, P.: Op. cit., 18. or.

(19) LACOMBE, G.: Op. cit., 242. or.

(20) AREITIO, F.: Op. cit., 348. or.

(21) VILLASANTE, L.: Op. cit., 366. or.

(22) VILLASANTE, L.: Ibid., 366. or.

“Kale batean apaiz batekin topo egin nuen; nor zen ez nekien; hark, etxean balio handiko paper mordoa zuela eta, laguntza behar zuela bertantxe, haiek sutatik jaregiteko; gudariak, bazela hirian premia handiagoko egitekorik eta nola nahi zuen berak egoera hartan auto bat inguratzea; Yoseba Elosegi, ‘Saseta’ baitailoiko 3. Konpainiako Kapitanagana jo, zer paper ziren esan, auto batean kartoezko kaja guziak sartu eta Kanalán, hango Erretore jaunaren etxean izkutatu”.

Handik aurrera aukalo nork eta nora eraman zituen jakak eta kajen jabea! Guk bakar-bakarrik dakigu 1937-38. ikasturtean Toulousen bizi zela, Kataloak dioskunez: Rue des Fleurs, 22an.

Hemengo gerratea bukatu eta gero ere ez zen handik mugitu, ez zen hegoalderantz hurbildu. Lanean aritzen zen egun osoan, Biblia osorik itzuli arte, eta hantxe hil zen 1942ko irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, hain zuzen, “itxuratxarki, erarik traketsenean, ixtripu ergel batean” (23), Mitxelenaren beste bat hil zeneko hitzez esateko. Kaleetan barrena zihoala, kamioi batek kaleburu batean bira egitean, hango enbor luze batek jo eta ormaren kontra bota zuen; kolpeaz gain min handirik hartu ez zuela uste, baina barruan zerbait lehertu nonbait, eta egun gutxitara hil zen. Aita Galdos Erromatik zetorrela gertatu zen han egun hartantxe Olabideri ikustaldi bat egitera joana, eta gorpu aurkitu zuen.

Erabat bukatua utzi zuen Olabidek Biblia osoaren itzulpena, azken prestalanak, ukituak eta oharrak izan ezik. Hauek egiteko egokiena aita Patxi Etxeberria iruditu zitzairen agintariei eta Formosatik etorriarazi zuten, non baitzegoen mixiolari Txinatik ihes egin ondoren, eta ia bi urteko lan isilari eskerrak, azkenik 1958an eman zuen argitara. Hauxe izan zen euskaldun berri Olabideren bizitzako obra erraldoia. Honi buruz Orixek honela idatzi zuen:

“... zenbatez goxoagoa dan hango euskera. Liburu zailen artean or daukazu Dabiden eresiak. Zein ederki itzuliak!... Eta izkuntza zaillera baldin bagoaz, or daukazu Lebi'tarren Liburua, dena korapilloz betea... Eta Job'en liburua? Arrigarri da! ... Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, xehe-meherik txikiena ere galzten uzten ez duna” (24). Lafittek beste hau: “reconnaissons les grandes qualités de la traduction dans son ensemble: le P. Olabide a cherché le mot juste, évité les périphrases, visé à la variété, obtenu la concision et la noblesse du style” (25). Villasán-

(23) MITXELENA, L.: “Luis Martin Santos”, MEIG, 28, 80. or.

(24) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko-Gogoa*, 1958, 519. or.

(25) LAFITTE, P.: Op. cit., 23. or.

tek: “quedará siempre como un monumento, como un algo logrado, digno de admiración y respeto. Y su autor pasará a la historia de la literatura vasca con su sello personal, inconfundible, como el más genuino representante de una época y de una tendencia”, dio (26).

Baina iritzi guzien artean bana-banakoa, bizian eman zituen guzietan, ene ustez, hoberenetakoa, Lizardiz eta Orixez eman zituenen parekoa, Mitxelenak emandakoa izan zen (27). Hona lerro gutxitan laburtua.

Alde onak eta txarrak ikusten ditu Mitxelenak Olabideren obran. Txarrak Mitxelenarentzat ez dira lau, ez hiru, ez bi, bat baizik: hizkera (nahiz beheraxeago bi huts larri dituela dioen). Eta Olabideren hizkeraz ari zaigu maisuki zazpi orrialdetan barrena. Joera baten eredu bezala ager omen daiteke, “ez baitu beste inork hain urruti jo bide horretatik eta, batez ere, ez baita beste inor hain zeharo eta jakinaren gainean ibili bide horretan barrena” (112. or.). “Saio-hizkera, hots, euskara experimentalak deritzat Olabideren hizkerari”, dio, “bide berri batetik abiatuz gero noraino hel litekeen antzemateko sortua edo” (ibid.).

Saio-euskara horren ezaugarri hauek aipatzen ditu:

1) ortografia;

2) hitzen aukera, eta hor berrizale ez, baina zaharzale, zaharregi-zale omen da Olabide; bere buruaz, berriz, “zaharzalea nauzue, baina zahar-nahiz berrizaletasunean beharrezkoa dirudi neurriak”, aitortzen digu Mitxelenak.

3) Euskalkiak nahasi ageri omen dira, “Euskalerriko xokorik galdue-netan jaso izan diren hitzak” maizegi hartuz.

4) Erdaratikako euskal hitzak ez omen ditu zeharo baztertzen; gehiegi samar bai, ordea.

5) Hitz berri asko omen ditu liburuak, “zaharraren zaharrez ahaztuak edo, bazterren batean ezagunak badira, euskal literaturan inoiz sarrrerarik izan ez dutenak”; Olabidek bai omen zekien horien ordez bazuela besterik, ez egin ordea jaramonik behinola Larramendik Mendibururi eman burubideari; eta ezin omen egin ere, “euskaldun berria izanik, eta bere aldiko euskaldun berria, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz”; ezin ekar orduko euskaldun berri batek begiramen handirik euskaldun jator bati.

(26) VILLASANTE, L.: Op. cit., 372. or.

(27) MITXELENA, K.: “Itun zar eta berria”, MEIG, 22, 11. or.

6) Hizkera hau saio-hizkera dela sinesten ez duenari argibide bat eskaintzen dio: ez omen da elizgizonik prediku batean esaldi hau dagoen dagoenean emango lukeenik: “Entzun duzute esanik dagola: *ez izortu...*”. Hiru akats omen ditu hitz horrek: bat, luzexeagoa da; bi, “ez du hor ezarri nahi zaion zentzua”; hiru, sermolari batek ezin dezake hezur-haragizko euskaldunen aurrean esan.

7) Azkenik euskalkien nahasmenduak, mami-mamiraino joz gero, gauza bera frogatzen duela, Olabideren hizkera gipuzkera soila dela eta enseiukarreen bezala aditz sintetikoa hartu duela dio.

Alde txar guzi horiek laburbilduz honela dio, azkenik: “Huts larriak, bi ditu itzulpen honek. Esan dudan naturaltasunik eza, aurrenik, eta pekatu larria da,... Beste hutsa teoriari dagokio, baina saioetan teoriak, eta teoria zuzenak, behar du izan gidari, sasi tartean galduko ez bagara” (120. or.)

Honaino alde txarrak. Ikus ditzagun ere laburki alde onak. Liburuarenak lehenik:

1) “euskaldun batek letra sailean inoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean” (111. or.).

2) “Jatorrizko hizkuntzetarik hartua dago Olabiderena, ez latinetik, eta Biblia gaietan egungo egunean aurki daitekeen jakitearen laguntzarekin itzulia”(112. or.).

Hizkerarenak gero: “ugari, txit onak eta onenetakoak” omen dira:

1) Gaiari begira... *longe princeps* omen da Olabiderena Bibliaren euskal itzulpenen artean.

2) Hizkuntzari dagokionez “ezin utzizkoa eta miratu beharrekoa” omen da; ederki ikasi omen zuen euskaraz.

3) Seinalagarri diren zatiak ez omen lirateke berehalakoan aipatuko, eta bakar batzuk aipatzen ditu.

4) Euskal aditzaren bereiztasunak bere lekuan utzi omen ditu Olabidek, —entzun ondoko ziztada hau— “euskalari gorengoen iritziak gorabehera (eta ez ziren zoritxarrez euskaldun berriak)”, dio.

5) Bihotz-bihotzez nahi omen zuen euskalkien arteko batasuna, ez omen zuen ordea behar zen lekuan bilatu; gerora begira omen zegoen eta batasuna lehenean egoki.

6) Giza-eredutzat hartzekoa omen da, hizkuntz-eredutzat inola ez, ez omen baitzuen behin ere menderatu hizkuntza. Eta esaera antzeko

perpauk honekin amaitzen du artikulua: "Saioa egina dago. Ez dago bide horretatik Olabide baino gorago joaterik". Kritika ederra, ene ustez. Hutsarteak haren garaiko dotrinei, merezimenduak pertsonari egozten dizkio Mitxelena. Nago ados legokeela Olabide eta pozik sinatuko lukeela erabat harturik oso goresgarri den iuiamendu hori.

Badugu honenbestez Olabideren euskal itzulpenen berri zehatza eta kritikari zorrotzen iritzia aratza. Bere baitako euskal lanak gutxi dira daturik; oso gutxi. Harritzekoa al da? Hogeita zazpi urtez hasi euskara ikasten, non eta Salamankan; gero Oñan, Manresan, Jijonen, La Guardian, Valladoliden bizi izan, eta bizi izan irakasle lanetan jardunez eta desorduetan euskara landuz, batere maisurik gabe, bakar-bakarrik, eta horrela hogeita hiru urte Euskal Herrira behin ere itzuli gabe, berrogeita hamar urte bete arte... Nork ez du konprenituko eremu horietan eta bigiro horretan euskara mintza-mailan ez menderatu izana?

Euskaraz idatzi zuena bi lerrotan aipa daiteke. Baina uztazue lehenik, arren, iragaitzaz badere aipatzera gazteleraz idatzi zuena, lehen aipatu dudun "Lexicología y lexicografía"-z gain. 1925eko "Informe acerca de un Diccionario de la conjugación euskérica en los escritos de los siglos XVI y XVII" delakoari nagokio. Egin izan balu, Lafon jaunaren aitzindari izango zatekeen. "Un diccionario de flexiones verbales ha de ser completo y metódico", dio hastean berean. Eta gero: "ni el más insignificante pormenor de nuestra conjugación debe dejar de recogerse"; "el otro afluente, el principal, el más interesante y el de más laboriosa captación, es el habla viviente"; "para estas consultas bien se ve que la catalogación alfabética de las formas verbales euskéricas es perfectamente inútil. Lo que debe estar catalogado es el ideario conjugativo"; "nuestro diccionario no será una gramática de la conjugación euskérica, pero valdrá por todas las gramáticas, que tendrán que venir a él para rehacerse..."; "he aquí cómo concibo yo esta catalogación ideológica", eta bi sailetan banatzen du azalpena: aditz sintetikoa eta perifrastikoa.

Hona azkenik euskaraz idatzi zuena: *Gogo Iñarkunak* direlakoei eta *Giza-Soñari* ipini zizkien hitzaurreak; *Euskal-Esnalea*-n 1919an argitaratu zituen bi lantxo: "Itzetazkuna", edo Lexikologia, bat eta "Euzkel-iztegia" bestea, eta azkenik Damaso Intzak Euskaltzaindian sartzean egin zuen hitzaldiari eman zion erantzuna (28). Entzun bi zati hauek, grafian aldaera txiki batzuk eginik:

"Lotsagarria da gure Erri maitean aspaldi aspalditik gertatzen dana. Senegal-darrak Franzen bezela, euskaldunak beti arrotzen arazoetan murgildurik gabiltza. Euskalerrria aztuta, atzerriko

(28) *Euskera*, 1921, II, 36-50. or.

naspiletan euskaldunak aurrelari beti, aurreneko lerroetan burrukari. Zuri naiz beltz, gorri naiz urdin, ez da atzerrian ikurri-ñik eraikitzen, euskaldunok ara berealaxe su ta gar jotzen ez dugunik. Arrotzentzat egiñak bide gera; aien zama jasotzeko, aien kezka urduri ibiltzeko; aien atseginez pozteko; aien eduz agertzeko; aien izkeraz mintzobearrak; aien ederra orotan irabazi ta eukitzekoak. Euskelerria baño egokiago Morroi-erria deitu gaitezke. ¡Ain gera arrotzarekiko tiñel ta adeiberak; gure Erriarekiko, berriz, soraioak!”.

Geroxeago beste hau:

“Gutxi dira, noski, eskolagabeko euskaldunak. Eskolatik, baña, euskaldunok zer atera dezakegu? Eskoletan euskera ito, edo euskaldunak ezer ez ikasi bear. Eskolara orduko, atadian bertan, gure umetxo euskaldunei oñazkarren burrunba antzeko otsez esaten zaie: *lasciate vostra lingua voi ch'intrate*: utikan euskera, sartu zeratenok. Euskerarentzat tokirik emen ez dago; eskola erderarena ta erderarentzat baizik ez da. Erderaz izan ezik, emen ezin diteke itzik ere ez entzun, ez egin. Euskal-usai-ñik ere ez da emen zillegi”.

Bukatu dut. Galdera bat: hain zaila eta nahasia, hain zokoko hitzez eta zaharkituz betea al da Olabideren hizkera? Eta desira bat: ez daitezzen gehiago egia izan Orixeren hitz haiek:

“Badira oraindik aren lanari muziñ egiten dioten euskalzaleak, ez baitute bear aiña ezagutzen, ez ezagutu nai ere” (29).

* * *

Hona hemen gaztetan eiho zituen latinezko olerkiak:

A) *Hispaniae custos*

Armorum sonitus ingens Hispania coelo
Audiit, atque tremens maurosum perfida vidit
Agmina funesto campos vastantia ferro.
En, hostis clamat, Christi quae nomine tellus
Infesto nos Marte petit bellumque minatur.
Christiadum gentes pereant, urbesque lucosque
Omnes vastemus flammis, segetesque madescant
Fuso natorum persaepe cruore suorum.
Irruit in nostros agros densissimus hostis,
Infensae veluti cum coelo messibus alto

(29) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko-Gogoa*, 1958, 518. or.

Locustae veniunt agros populare rubentes,
 Maturus fructus gravidusque secare racemos.
 ¡Heu! quantam Hispani caedem stragemque dolebunt!
 Ecce autem coelo demissus dux Iacobus
 Adstat, et ipse ferox claris circumdatus armis
 In mauros stricto molitur fulmina ferro.
 Obruit ingenti formidine pectora terror,
 Afrosque exultans patriis excedere terris
 Hispanus tandem vidit; palmasque decoras
 Ad coelum visumque levans, dignasque rependens
 Grates, ductoris tanti virtute salutem
 Sensit detectam, tollensque ad sidera vocem,
 Auxiliumque petit servatoremque fatetur.

Raimundus Olavide s.j.
 (Junio 1887)

B) *Beatissimo Leoni Papae XIII*

Eja laborum, Christiadum decus,
 Nox atra cessit; solis et aurea
 Coelo renidet nuntia orbi
 Pax et amica reducit ora.
 Vidi cruentas ora vomentia
 Spumas; et hostes arma micantia
 Vidi tuorum in cor vibrare
 Corda truci et rabie tumere.
 ¡Eheu! catenis regia pectora
 Visenda nobis quis fore crederet
 Innexa, foedatumque sceptrum
 Pulvere regibus obsequendum?
 Haec cerno, et auras carpere gaudeo?
 Solque ut fugabit nubila cernere
 Qui pandet exutam coronae
 Caesariem niveam Leonis?
 Cesset labores noster amabilis
 Perferre custos; et Leo gaudeat
 Virtute partis saepe palmis
 Despiciens generosus hostes.
 Qualis minaces aequoris impetus
 Contundit acer cedere nesciens
 Rupes; et atri immotus Orci
 Ictibus invalidis resistis.

Raimundo Olavide s.j.
 (Enero 1888)

C) *Ad Societatem congratulatio pro honoratis hoc anno tot eius filiis.*

Prolis magnanimae Parens,
 Salve, namque licet tempora lucidis
 Ornes luminibus, jubar
 Solis quae superent dum medius nitet.
 En vexilla per ultimas
 Telluris volitant Lojolidum plagas;
 Et nunc conspicit Africa,

Necnon Americae devia littora,
 Nigrumque Oceani genus,
 Sinarumque potens imperium tuos
 Cernunt usque laboribus
 Quaerentes animos, corda beandaque.
 Dum quaerunt alii latens
 Imis sepositum montibus invidi
 Argentum pretii, Claver
 Illustrat penetrans claustra nigrantia
 Claris luminibus Crucis.
 Illic pestifero vulnera laetior
 Iam liquentia lambere
 Festinat carie, quam genialibus
 Coenis semiviri bibunt
 Gentiles avidi vitea pocula.
 Illic usta ferocibus
 Signis servitii tempora qui ferunt
 Afros, fluminis abluit
 Sacri rore. Claver delicias ibi
 Scivit quaerere, turgidum
 Quo mundus trepidat ferre pedem, levi
 Mallens flamine garrulo
 Famae nomen agi in dissita littora.
 Hac virtute Briantus et
 Fortis Campianus nil veriti trucis
 Mortis saevitiem, neque
 Diras immitium vindicium, legunt
 Acres funera sanguine
 Effuso oppetere, flectere nescii
 Regum jussibus impiis
 Summus corda Deus, quae sibi vindicat.
 Berchma(n)s interea libris
 Insudat cupiens artibus indui
 Armis ut validis, quibus
 Elati Satanae vim premat impiam.
 Mater, indue gaudia;
 Vicisti purior cum nive candida
 Berchmans agmina coelitum
 Instructus petiit praesidio tuae
 Servatae bene Regulae.
 Et cum clavigeri gloria nominis
 Alphonsi tua munia
 Reddit parva etiam grandia gentibus.
 Hic te sol velut aureas
 Stellas inter adest clarius emicans,
 Conspexit magis undique
 Fulgentem reliquis Relligionibus.
 Gaude, mater amabilis,
 Luxit namque tibi splendia jam dies
 Qua, scissis nebulis, sciat
 Mundus qua genitos lacte tuos alas.
 Acri gignitur acer, et
 Tellus ruricolae fructibus horrea
 Replet, prodiga seminis

Quod sulcis voluit credere rusticus.
Gaude, namque patres manet
Qua fulgent geniti gloria nobiles.

R. Olavide s.j.
(Junio 1888)

D) *Martyrium Divi Stephani*

Iudaei crebris infigunt vulnera saxis
Magnanimo Stephano; obrutus ipse ruit.
Ne tamen exstinctum doleas discrimine tanto;
Scinduntur coeli; praepetibusque chori
Descendunt alis geniorum, luce corusci;
Sparsa levesque legunt sanguine saxa viri.
Sertoque ex illis contexto, tempora cingunt;
Militis haec tanti digna corona fuit.

R. Olavide s.j.
(Enero 1889)

LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI, HASIERAKO EUSKALTZAIN URGAZLEA

Gasteiz, 1994.04.22

Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu

Euskaltzaindiak, sortu zen hasiera-hasieratik, euskaltzain osoen lagungarri euskaltzain urgazle edo laguntzaileak egitea onuragarritzat jo zuen.

Asmo horrekin, 1919ko urriaren 26an, lehenengo euskaltzain urgazleak izendatu zituen. Hasierako lehenbiziko haien artean, Arabaren aldetik bi izan ziren izendatuak. Odon Apraiz Buesa eta Luis González de Etxabbarri. Arabaren aldetik esan dut eta, beharbada, Arabako euskalkiaren aldetik esatea hobeto izango litzateke.

Nor genuen ba Luis González de Etxabbarri hau? Luis Vicente Pedro Francisco González de Etxabbarri Martínez de Mendibil Ubiden (Bizkaian) jaio zen, 1893ko urriaren 8an. Ubide, Bizkaian egon arren, Arabako muga ondoan dago, Arabako lurraldea Ubideko lehenengo etxeetaraino heltzen baita. Muga baten ondoan dauden hiri eta herri guztiak, edo gehienak behinik behin, izpiritu zabalekoak ei dira, inguruan dituzten bi lurraldeen usadio eta ekarpenak izaten ohi dituzte eta.

Ubidek, Gorbeia atarian, mendi eder horren maldetan du bere kokagunea. Gorbeiak berak Araba eta Bizkaia batzen ditu bere tolestapen geologikoan; bere tontor biribilduan, Araba eta Bizkaiko lur goienek Mendebaldeko Euskal Herria ikustatzen dute begirada batean, eta baita Euskal Herri osoko gailur nabarietak ere ikusten dituzte, han urrunean, eguraldi gardenarekin, batez ere neguan, egun argitsu, zoragarri eta garbi horiek suertatzen direnean.

Gasteizko Lautada inguratzen duten ibar eta haran maitagarri askoren artean, hor aurkitzen dugu Ubide, Undebe ibaiak eratzen duen ibar xume horretan bilduta, Gorbeiapen. Bizkaian bai, berriro diot, baina Ubide inguruko urak Arabaruntz, Ebroruntz, doazelarik. Gero ur prezia-tu horiek, gizonak egindako urtegien bidez, eta behin batez erabaki zen heinean, bizkairatuko dira berriro (hori bai dela Bizkaitik Bizkaira joatea,

Arabaren bidez kasu honetan), Bilbo eta Bilbo inguruko biztanleen beharrei aurre egin ahal izateko.

Honela da gure geografia eta baita guk egindako hiri eta lurralde antolaketa ere. Bizitza uhinkorra omen da eta aski bihurgune du.

Araba eta Bizkaia artean osatzen den marko ikusgarri hori aurkeztea beharrezkotzat jo dut, gure omenaldi-egun honetan goraiatzeko Luis González de Etxabarrri euskaltzain urgazlearen bizitza eta sentimenduak errazago ikusteko eta azaltzeko. Gizona gizonak berak eta bere inguruko paisaiak egiten omen dute.

Luis González de Etxabarrri, bizkaitarra jaiotzez eta arabarra jatorriz, bere lehenbiziko urratsak Ubide eder horretan egingo ditu eta bere belarriek, erdaraz gain, horko euskara berezia entzungo dute, Araba bizkaiera edo zuzenago nahi bada Gorbeia aldeko goi-bizkaiera, Ubide, Otxandio, Oleta, Legutio, Elosu, Nafarrate, Urrunaga, Goiaín, Urbina eta ordurarte Zigoitiko herrirka batzutan mintzatzen zen hizkera hunkigarrria.

Luis González de Etxabarrriren aita, Ramón González de Etxabarrri, Gasteizkoa zen, eta ama, Juana Martínez de Mendibil, Eskoriatzakoa; aiton-amonak, aitaren aldetik, Gasteiz eta Frías (Burgos)-koak ziren, eta, amaren aldetik, Okariz eta Legutiokoak. Aitak Medikuntza estudiatu zuen eta, behin osagilea izanez gero, urte batzuk Ubiden egin zuen lan. Handik Gasteizera joan zen eta berarekin batera familia osoa. Gasteizen estudiatu zuen Luisek batxilergoa. Hurrengo pausoa Lege estudioak egi-
tea izango da eta ordurako bilboratuko zen.

Bilbo izango da Luisentzat bere agerpen publikoa ikusiko duen hiria. Mende honen hasierako Bilbo zabala (gaur estua bihurtu dugun Bilbo hura) izango da Luisen urte hoberenen hiria.

Luis González de Etxabarrri estudio eta lanak eginez gain, kazetaritza zuen batez ere gogoko, lan adoretzu hori politikazko ekintzarekin batera trebe egiten zuen eta. Luisi, gaztetasun sasoiaren izanik, urte horiek oparo gertatu zitzaizkion, bere barrutik zerizkion kemen eta sormena literatur eta zabalkundeko idazlanetan gauzatu.

Euskal Herrian, eta baita beste herri askotan ere, maiz ikusi ditugu idazleak izen berri eta egokiak bilatzen, eta, sarri askotan, bilakizun horretan ere, euren bururako izen egokienaren aurkikuntzan ahalegintzen. Horrelaxe egin zuen Luis González de Etxabarrri, "Aizkibel'dar Bingen" izen trinkoa beraren bururako izengoitiz hautatu zuenean. Izen honekin euskaraz egindako lanak sinatuko ditu eta "Vicente de Aizkibel"arenarekin erdarazkoak.

Behin izena hautatuz gero, bere ideia, sentipen eta burutapenak hitz idatzien bidez agertuko ditu. 1915ean, 21 urterekin, “Euzkadi” aldizkariaren urteko II. alean bere lehenengo lana ikusiko dugu; euskal abertzaletasuna gorpuztu zen lehenbiziko egunetatik gaurdaino bizi iraun duen bitasun kezkarri baten galdera aukeratuko du lan horren izenburuz: “Euskaldunak ala euzkotarak?”, euskaldun euskaltzale baten kezka, euskarak dirauen bitartean, gai iraunkor honi buruz azaltzen dizkigu eta.

1916an “Eusko Gaztedi”-ko burukidea izendatua izango da eta erakunde horren alde lan eta behar politikoak gogotsu egingo ditu. Urte horretan bertan “Idearium” aldizkarian “Renacimiento euzkérico” artikulua idatziko du.

1917an “Aizkibel’dar Bingen”en lehenengo liburuak argia ikusiko du; kontu liburu bat zen lehenbiziko hau: *Ipuin aberkoyak*, Grijelmo-n argitaratua. Izenburuak dioen legez, *Ipuin aberkoyak* liburu honetan Luis-ek Aberriarekiko zuen atxekimendua kontu mamitsueta eratzten digu.

Urte berean, 1917an, Bilboko *Hermes* kultur aldizkaria Luisen aldizaldiko lan literarioak agertzen hasiko da. Urte haretan, *Hermes*-en bost poesia agertuko dira, “Eduñe”, “Ni...non ni”, “Eunlarija”, “Ama-semeak”, “Agurra”, gabonetako kantu bat, “Seaska abestija”, eta Zuloagaz artikulua bat. *Euskal Esnalea* aldizkarian “Illobea” olerkia idatziko du.

1918an beste liburu bat eskainiko digu, *Uretxindoña* izenarekin, Grijelmo-n bertan argitaratua; liburu baikor eta kantakor gertatzen zaigu *Uretxindoña* hori. Honez gain, zazpi olerki agertzen ditu “Aizkibel’dar Bingen”ek *Hermes*-en, “Guiard”, “Mosuba”, “Donostia”, “Zegaitik-ete?”, “Bakea”, “Otza” eta “Regoyos”, lan bat, “Zindoen batzaña” eta Kirikiño ren *Abarrak* liburuari buruzko artikulua bat idazten du *Hermes*-en bertan.

1919an euskarazko zazpi olerki argia ikusiko du *Hermes*-en, “Ezau-nak”, “Biotzen bila”, “Gogo eresitsua”, “Lora zimela”, “Lora jauñtia”, “Abestia” eta “Ilunabaña”, eta erdarazko poesia bat, “Canto a Sabino” izenekoa, handik bederatzi urte, 1928an, *Patria Vasca*-n berrargitaratuko dutena.

Euskaltzaindiak bere lehenbiziko pausoak ematen zituen, eta, urte hartan, 1919an, urriaren 26an, gure Luis González de Etxabari euskaltzain urgazle izendatu zuen, arabar bizkaiera hizkeraren izenean, Ubideko Luis González de Etxabari, Gasteizkoa zen Odon Apraiz Buesarekin batera, hasieran genion bezala.

Euskaltzain urgazlea izan ondoren, idazteko gogoz jarraituko du “Aizkibel’dar Bingen”ek, bai alor literarioan eta baita lan eta zeregin politikoan ere. 1920an “Ezaugoa” olerkia idazten du *Hermes*-en eta aldizkari berean, eta antzerki arloan oraingoan, bere lehenengo saioa aurkez-

ten digu; antzerki lan labur bat, “Jai Alai” izenekoa. Hiru urte lehenago aipatzen genuen euskaraz idatzitako *Ipuin abeĥoyak* liburua oinarri hartuz, 1920an erdarazko *Cuentos patrióticos* liburua argitaratuko du Bilboko Editorial Vasca-n.

1921ean bi poesia agertuko ditu *Hermes*-en, “Irudia” eta “Aterik-ate” izenekoak, eta beste bi *Euzko Deya*-n, “Ituna” eta “Egija” izenekin. Urte hartan erdarazko bi libururen kritika egingo du *Hermes*-en, J.C. Gortazar-en *Bilbao a mediados del siglo XIX* eta Arana eta Conde-ren *Fraternidad vasco-histórica* liburuena, hain zuzen.

1922an Luis González de Etxabari ezkonduko da, 1922ko urtarrilaren 21ean, Santiago parrokian, 1949an Bilboko katedrala izango zen eliza gotiko ikusgarri horretan. Luisek 28 urte zituen.

1920. hamarkada hori aldaketa askorena izango da mundu osoan, batez ere Europan eta Ekialde Hurbilean. Brest-Litovsk, Versailles eta Saint-Germain tratatuak sinatu berriak ziren eta germaniar eta errusiarren artean estatu mordo bat eraiki zen. Batzuk tradizio zaharrekoak edo ondo sortuak, Polonia, Lituania eta Finlandia, esate baterako; beste batzuk, berriz, aski era zailtan egindakoak, hala nola, Txekoslovakia eta Serbia, Kroata eta Eslovenoen Erresuma, geroxeago Jugoslavia izango zelakoa. Otomanoen Inperioaren suntsipenak beste inperio batzuren zabaltea ekarriko du, batez ere ingelesa eta frantsesarena, II. Gerra Mundiala etorri arte; baina hor somatzen ditugu pil-pilean, gero pol-polduko ziren arazo larri batzuk: Palestina, Jordania, Libano, Siria, Irak, Kuwait eta Arabiako zenbait jaurerri. Mendebalerago itzuliz, Éire-ren “Home Rule” zelakoa lehenbizi eta segidako burujabetza edo independentzia adibidea izango zen egun haietako hainbeste estatu gabeko nazionalistentzat.

Esandako hori dena politikari bagagozkio. Era berean, ohiturak eta usteak ere aldatuz joan ziren, eta mende honen hasierako sufragista edo emakume botozale famatu haiek, urratsez-urrats, emakumegoaren gorakada astirotsua ikusiko zuketean, bizitza luze xamarra izanez gero. Gorakada hori hanketatik hasi zen itxuraz, gonon luzeera moztuz, burura heldu zen berehala, “à la garçonne” ile mozketarekin, eta, batzuek uste baino laisterrago eta sendiago, kontzeptu eta usadio asko nabarmen aldatu ziren.

Faxismoa ere orduan hasten zen. “Camicie nere” haiek jarraitzaileak izan zituzten. Eta Espainian Alfontso XIII.ak amu hori irentsiko zuen, 1923ko irailean, Primo de Rivera generalaren “coup d’État” hura onartu zuenean, parlamentarismoa zazpi urtetarako alboratuz.

Gure gizona, Luis González de Etxabari, urduria zen eta inguru guzti horren giroak hura ere influentziatuko du. Eusko Alderdi Jeltzalea-

ren zatiketa gertatu zen, eta *Aberri* egunkaria sortzen denean, hor ikusten dugu “Aizkibel’dar Bingen” kazetaritzan iharduten, batez ere euskarazko artikuluak egiten. 1923an *Aberri* zuzentzera helduko da eta, hurrengo urtean, Eusko Abertzale Ekintzakoekin lan egiten ikusiko dugu. Azken erakunde honen aretoan hitzaldi deigarri eta poetiko bat eskainiko du, “Arana Goiri, bardo de la patria” izenarekin, 1924ko azaroaren 30ean.

Euskadiko giroa hertsituz zihoala, halabeharrez, eta Luis González de Etxabarrik Ameriketako bidea hartzea erabakitzen du. Hango lur zabalagoak, hemengoekin gonbaratuz, izpirituz ere zabalagoak izango zitzaizkion esperantzarekin hartzen du Luisek Argentinarako itsasontzia.

Betiko izango zitzaion argentinaratze hura. Ez zen berriro Euskal Herrira itzuli eta emaztea eta alabak ez omen zituen gehiago ikusi.

Argentinara heldu bezain laister, 1925ean, Euskadirekiko maitasunak eraginda, eta Sebastián de Amorrortu-ren moldiztegian, Arana Goiri-ri buruz emandako azken hitaldia argitaratuko du eta, etxe berberaren bitartez, berak egingo duen azken liburua agertuko digu, “Cantos de Euzkadi” izenarekin.

Ordutik aurrera, Argentinan kazetari gisa biziko da. *La Nación* argentinari egunkari famatuan lan egingo du, bere erretirapena etorri arte. Ingeles eta frantsesetik itzulpenak ere egingo ditu, bizitzaren beharrei aurre egiteko.

Ameriketako, Argentina eta Mexikoko, eusko aldizkari askotan idatziko du “Vicente de Aizkibel”ek: *Mundial, Euskalduna, La Baskonia, La Nación Vasca, Patria Vasca, Vida Vasca* eta *Euzko Enda*-n.

Euskarazko lanak ere aldiro-aldiro egiten jarraituko du, batez ere olerkiak idatziz, eta *Egan*-en poesia batzuk agertuko dira. 1956an *Vida Vasca*-n *Illezinak* euskarazko olerkia idatziko du, 1928an “Gente inmortal” bezala ezagutu genuena.

Azkenean, Luis González de Etxabari Buenos Aires-en hilko da, 1971ko abuztuaren 7an, 77 urte zituelarik.

Ohore “Aizkibel’dar Bingen”i, gizon kementsu eta adoretzu honi, arabar bizkaieraren edertasuna maitatu zuen euskaltzain urgazle ohoregarriari.